

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1790

EBAZPENA, 2013ko martxoaren 25ekoa, Langileriaren Kudeaketarako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan irakasleen aldi baterako premiak betetzeko izangaien zerrenda kudeatzeari buruzko araudia onartzen duen 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren III. eranskinean jasotako titulazio eta espezialitateen tauletan beste titulazio batzuk sartu eta daudenak aldatzen dituen.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren bidez (2012-09-11ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan irakasleen aldi baterako premiak betetzeko izangaien zerrendak kudeatzeari buruzko araudia onartzen da. Agindu horren II. eranskinean espezialitate eta irakasgaien zerrenda sartzen da, eta III. eranskinean irakaskuntza-maila desberdinetako espezialitateak irakasteko aukera ematen duten titulazioen taulak sartzen dira.

Bigarren azken xedapenaren bidez Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzari ahalmena ematen zaio, premia izanez gero, ebazpen baten bidez eta sindikatuetakako ordezkariekin negoziatu ondoren, ikasturtean zehar, birbarematze-prozesu bakoitza hasi baino lehenago batez ere, titulazio berriak sartzeko, adierazitako taulan agertzen diren espezialitateetako batzuk emateko edo, akatsak daudela egiaztatuz gero eta behar den txostena egin ondoren, daudenak aldatzeko.

Ikusi denez, zenbait espezialitate emateko gaitzen duten titulazioak zehaztu behar dira, beste espezialitate batzuetan titulazio berriak gehitu behar dira eta zenbait kasutan, akatsak daudela egiaztatu ondoren, daudenak aldatu behar dira.

Horretarako osatu den batzordeak egin beharreko aldaketak ebaluatu ondoren, eta legeak xedatutakoaren arabera, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskinean kasu bakoitzean zehazten diren espezialitateetarako adierazten diren titulazioak 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren «titulazio eta espezialitateen taulak» deritzon III. eranskinean sartzea. 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan irakasleen aldi baterako premiak betetzeko izangaien zerrenda kudeatzeari buruzko araudia onartzen da.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan aldi baterako irakasleen premiak betetzeko izangaien zerrenda kudeatzeari buruzko araudia onartzen duen 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren III. eranskinean «titulazio eta espezialitateen taulak» dauden titulazioak ebazpen honen II. eranskinean adierazitakoaren arabera aldatzea, eta, behar izanez gero, zuzentzea,.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egun beretik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena.— Ebazpen hau indarrean sartzen denean irakasleen ordezkapenak egiteko izangaien zerrendan dauden izangaiek zerrendetan jarraituko dute, baita urteroko birbarematze-prozesuen ondoren eratuko diren zerrendetan ere, zerrendetara sartzeko baldintzei begira ebazpen honek sartzen dituen aldaketak alde batera utzita.

Hirugarrena.— Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta, beraren aurka gora-ko errekurtoa jarri ahalko zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 25a.

Langileriaren Kudeaketarako zuzendaria,
KONRADO MUGERTZA URKIDI.

I. ERANSKINA

1.– Haur eta Lehen Hezkuntza.

Kidegoa: Maisu-Maistrak - Euskara (0952).

Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko Irakasletzan diplomatuaren titulua, Euskal Filologia espezialitatean, gehitzen da.

2.– Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa.

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako Irakasleak - Italiera (0133) - c) azpiatala.

Erreferentziako Esparru Bateratu Europarraren Italierako B2 edo goragoko mailako ziurtagiriak sartzen dira eta horrela geratzen da:

c) 2. kidesuna:

Adierazitako titulua + IGA edo Irakasleen Prestakuntzako Masterra dagokion espezialitatean (Hizkuntza eta Literatura).

Lizentziaduna honako hauetan:

– Filologia + Diploma Avanzado di Lingua Italiana (DALI) edo Certificato di Conoscenza della Lingua Italiana Livello 3 (CELI 3) edo Diploma Commerciale di Lingua Italiana (DALC) edo Certificato di Conoscenza della Lingua Italiana Livello 4 (CELI 4) edo Certificato di Conoscenza della Lingua Italiana Livello 5 (CELI 5) edo Hizkuntza Eskola Ofizialetako italierako maila aurreratua (B2) edo goragokoa.

– Itzulpena eta Interpretazioa (C hizkuntza=Italiera).

– Hizkuntzalaritza + Diploma Avanzado di Lingua Italiana (DALI) edo Certificato di Conoscenza della Lingua Italiana Livello 3 (CELI 3) edo Diploma Commerciale di Lingua Italiana (DALC) edo Certificato di Conoscenza della Lingua Italiana Livello 4 (CELI 4) edo Certificato di Conoscenza della Lingua Italiana Livello 5 (CELI 5) edo Hizkuntza Eskola Ofizialetako italierako maila aurreratua (B2) edo goragokoa.

– Itzulpengintza eta Interpretazioa + Diploma Avanzado di Lingua Italiana (DALI) edo Certificato di Conoscenza della Lingua Italiana Livello 3 (CELI 3) edo Diploma Commerciale di Lingua Italiana (DALC) edo Certificato di Conoscenza della Lingua Italiana Livello 4 (CELI 4) edo Certificato di Conoscenza della Lingua Italiana Livello 5 (CELI 5) edo Hizkuntza Eskola Ofizialetako italierako maila aurreratua (B2) edo goragokoa.

– Gradua Filologian (guztiak), Gradua Euskal Ikasketetan, Gradua Ikasketa Ingelesetan, Gradua Hizkuntza Modernoetan (Ikasketa Ingeles eta Hispanikoak), Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan + Diploma Avanzado di Lingua Italiana (DALI) edo Certificato di Conoscenza della Lingua Italiana Livello 3 (CELI 3) edo Diploma Commerciale di Lingua Italiana (DALC) edo Certificato di Conoscenza della Lingua Italiana Livello 4 (CELI 4) edo Certificato di Conoscenza della Lingua Italiana Livello 5 (CELI 5) edo Hizkuntza Eskola Ofizialetako italierako maila aurreratua (B2) edo goragokoa.

– Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (C hizkuntza = Italiera).

3.– Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa.

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako Irakasleak - Nabigazioa eta Itsas Instalazioak (1515).

Titulu hauek gehitzen dira:

Espezialitateak	Tituluak
Nabigazioa eta Itsas Instalazioak 1515	a) 1. kidesuna: Adierazitako titulua + IGA edo Irakasleen Prestakuntzako Masterra dagokion espezialitatean (Teknologia). • Ondorengoetan lizentziatua: – Itsasontzi Makinak. – Itsasontziko Irrati Elektronika. – Nautika eta Itsas Garraioa. • Ondorengoetan diplomatua: – Itsasontzi Makinak. – Itsas Nabigazioa. – Itsasontziko Irrati Elektronika. • Ingeniaria: – Ontzigintza eta Ozeanoa. • Ingeniari Teknikoa: – Ontzigintza. – Gradua Nautikako Ingeniaritzan eta Itsas Garraioan, Gradua Itsas Ingeniaritzan.
	b) 2. kidesuna: Adierazitako titulua + Irakasleen Prestakuntzako Masterra beste espezialitate batzuetan. • Ondorengoetan lizentziatua: – Itsasontzi Makinak. – Itsasontziko Irrati Elektronika. – Nautika eta Itsas Garraioa. • Ondorengoetan diplomatua: – Itsasontzi Makinak. – Itsas Nabigazioa. – Itsasontziko Irrati Elektronika. • Ingeniaria: – Ontzigintza eta Ozeanoa. • Ingeniari Teknikoa: – Ontzigintza. – Gradua Nautikako Ingeniaritzan eta Itsas Garraioan, Gradua Itsas Ingeniaritzan.
	c) Aurrekoen titulu baliokideak unibertsitate-titulu ofizialen katalogoan.

4.– Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa.

Kidegoa: Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak- Makinak, Zerbitzuak eta Produkzioa (1559).

Titulu hauek gehitzen dira:

Espezialitateak	Tituluak
Makinak, Zerbitzuak eta Produkzioa 1559	1. kidesuna: • Ondorengoetan lizentziatua: – Itsasontzi Makinak. – Itsasontziko Irrati Elektronika. – Nautika eta Itsas Garraioa. • Ondorengoetan diplomatua: – Itsasontzi Makinak. – Itsas Nabigazioa. – Itsasontziko Irrati Elektronika. • Ingeniaria: – Ontzigintza eta Ozeanoa. • Ingeniari Teknikoa: – Ontzigintza. – Industrial, espezialitateak: Elektrizitatea eta Mekanika. – Gradua Nautikako Ingeniaritzan eta Itsas Garraioan, Gradua Itsas Ingeniaritzan, Gradua Ingeniaritza Mekanikoan eta Gradua Ingeniaritza Elektrikoan. Aurrekoen titulu baliokideak unibertsitate-titulu ofizialen katalogoan.

5.– Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa.

Kidegoa: Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak - Hazkuntza eta Laborantzako Instalazio eta Ekipoak (1570).

Titulu hauek gehitzen dira:

Hazkuntza eta Laborantzako Instalazio eta Ekipoak 1570	1. kidesuna: • Ondorengoetan lizentziatua: – Biologian. – Elikagaien Zientzia eta Teknologia. – Itsas Zientziak. – Albaitaritza. – Gradua Biologian eta Gradua Elikagaien Zientzia eta Teknologian. Aurrekoen titulu baliokideak unibertsitate-titulu ofizialen katalogoan.
---	--

6.– Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa.

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako Irakasleak - Sistema Elektroteknikoak eta Automatikoak (1510) eta Sistema Elektronikokoak (1511) - a) eta b) azpiatalak.

Industria Elektronikako Ingeniaritzako Gradua gehitzen da.

7.– Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa.

Kidegoa: Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak - Instalazio Elektroteknikoak (1550), Tresneria Elektronikoa (1551), Informatika - Sistemak eta - Aplikazioak (1555) eta Makinen Mekanizazioa eta Mantentze -lanak (1560).

Industria Elektronikako Ingeniaritzako Gradua gehitzen da.

8.– Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa.

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako Irakasleak - Geografia eta Historia (0124), Gizarte eta Hizkuntza arloko Curriculum Aniztasuna (0986), Gizarte Ezagutzaren arloko HHI (1586) eta Hizkuntza Errefortzua (1970) - a) eta b) azpiatalak.

Geografia eta Lurraldearen Antolamenduko Gradua gehitzen da.

9.– Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa.

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako Irakasleak - Gizarte eta Hizkuntza arloko Curriculum Aniztasuna (0986) - a) eta b) azpiatalak.

Giza Zientzietako lizentziatura eta Giza Zientzietako Gradua gehitzen dira.

10.– Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa.

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako Irakasleak - Latina (0126) - b) azpiatala.

Filologia Klasikoko lizentziatura gehitzen da.

11.– Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa.

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako Irakasleak - Teknologia (401), Marrazketa (239), Curriculum Desberdinak Eratzekoa, Zientzia eta Teknologian (989), HH Ezaguera Zientifiko Teknologikoaren esparrua (1585), Enpresen Administrazioa (1501) - a) eta b) azpiatalak.

Informatikako lizentziatura gehitzen da.

12.– Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa.

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako Irakasleak - Fisika eta Kimika (202) - c) azpiatala.

Informatikako lizentziatura gehitzen da.

13.– Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa.

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako Irakasleak - Informatika (237) - a) eta b) azpiatalak.

Informatikako Ingeniaritza gehitzen da.

14.– Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa.

Kidegoa: Lanbide-Heziketako Irakasle Teknikoak - Administrazio-Kudeaketako Prozesuak (1541), Merkataritza-Prozesuak (1542), Informatika-Sistemak eta -Aplikazioak (1555).

Informatikako lizentziatura, 1. kidesunarekin.

15.– Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa.

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako Irakasleak - Akuikultura-Prozesuak (1522) - a) eta b) azpiatalak.

Ondoko titulu hauek gehitzen dira:

- Lizentziaduna honako hauetan:
 - Elikagaien Zientzia eta Teknologia.
 - Albaitaritza.
 - Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua.

II. ERANSKINA

1.– Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa.

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako Irakasleak- Nekazaritza Produkzioko Prozesuak (1504)- a) eta b) azpiatalak.

Geologiako lizentziatura eta Geologiako Gradua kentzen dira.

2.– Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa.

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako Irakasleak- Ekonomia (0205)- a) eta b) azpiatalak.

Hau esaten duen tokian:

«Gradua Politika eta Administrazio Zientzietan».

Hau esan behar du:

«Gradua Politika Zientzian eta Kudeaketa Publikoan».

3.- Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa.

Kidegoa: Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak- Ibilgailuen Mantentzea (1546).

Hau esaten duen tokian:

«Gradua Industria Teknologiko Ingeniaritzan eta Ingeniaritza Mekanikoan».

Hau esan behar du:

«Gradua Industria Teknologiko Ingeniaritzan eta Gradua Ingeniaritza Mekanikoan».